ORKOIENGO HIRI AZPIEGITURA BERDEAREN PLANA

Posted on 12/11/2026 by Naider

Category: Albistea
Tags: Adaptación y mitigación climática, Espacio verde urbano, Estrategia de Infraestructura Verde, Nafarroa

NAIDERrek proposamen bat aurkeztu dio Orkoiengo Udalari (Nafarroa), bere **Hiri Azpiegitura Berdearen Plana** idazteko. Planak udalerriko berdegunea non zaindu, lotu eta birnaturalizatu erabakitzeko balioko du, baita lehentasunezko jarduketak nola gauzatu eta denboran nola mantendu zehazteko ere. Proposamenak puntuaziorik onena lortu du eskaintzen balorazioan.

Trantsizio Ekologikorako Ministerioak **Natura Leheneratzeko Europako Araudirako** kontuan hartzen dituen udalerrien artean dago Orkoien: aurrerantzean ez du hiri-berdegunerik ez zuhaitzik galdu behar, eta 2031tik aurrera handitu egin beharko ditu. Datu irekiekin (LiDAR, satelite-irudiak eta Katastroa) egindako lehen irakurketak bi errealitate erakusten ditu: bizitegi-guneek % 12,9ko zuhaitz-estaldura dute, eta industrialdeak, hiri-lurzoruaren erdia baino gehiago hartzen duenak, % 3,2koa, udan ia 2 °C beroagoa den lurzoru batekin.

Proposamenak udalerriko berdeguneen azterketa teknikoa eta herritarren parte-hartzea uztartzen ditu, Plana herri osoarentzat tresna baliagarria eta partekatua izan dadin.

NAIDERrek bere esperientzia ekarriko du: Bilboko Azpiegitura Berdearen Estrategia, AlcoiBioUp! proiektuko birnaturalizazioaren jarraipen-sistema eta euskal udalerriei Natura Leheneratzeko Araudia betetzeko emandako laguntza.